

...eta

# KITTO!

877 zkoa.  
2014-11-7



## Lainoen GAIZKA gainean MORALES dantzari

Erreflexuek ez dezatela ezkutatu nolakoa zaren.

mô betaurreko graduatuak islaren aurkako beslayt kristalekin

67€



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Bidebarrieta, 2  
Tel.: 943 20 05 22  
EIBAR

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

**Autran Institutoa, Bartzelona.**

**Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso Doktorea.**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

## ASTEAN ESANAK

"Errenta aitopena egiten dutenen %90 soldatapekoak eta pentsiodunak dira. Soldatapekoen urteroko batz besteko etekinak 27.000 eurokoak dira; enpresarietak, 20.400 eurokoak. Ez da iruzurrik izango halakoetan, ezta?"

(JORDI ARCARONS, EKONOMIA KATEDRADUNA)

"Euskal Herritik kanpo, ez dago txirrindularitza kulturarik Espainian. Atzerritarrek ere badakite hori. 2006an auzoko batek aitari esan zion noiz hasi behar nintzen lanean. Eta ordurako Espainiako Itzuliko liderra izana nintzen, mendiko sailkapena irabazita nuen..."

(JOAQUIM RODRIGUEZ, TXIRRINDULARIA)

"Pekingo Olinpiadak antolatzerakoan, emakumeen kiroletan jarri zuten indarra txinatarrek, nesken dominak lortzea merkeagoa eta errazagoa zelako. Txinak lortu zituen dominen %80 edo gehiago emakumeek lortuak dira"

(DORLETA UGALDE, KIROL ZIENTZIAK)

"Moskuko kale-txakur azkarrenek metroa hartzen dakite. Garatu duten trebezietako bat da goizero, Moskuko erdialdera joateko, metroa hartzea. Gaur, etxera itzultzeko, gauza bera egiten dute. Erdialdean janaria aurkitzea errazagoa da, baina gaur lo egitea ezinezkoa egiten zaie"

(JOSE ANGEL ORIA, KAZETARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KAKA EGIN.-** Sinonimoak: komunean izan, komuneko biharra egin, librau.

**KAKA DARIXOLA.-** Oso bildurtuta, larri, estu. "Baloiaren bila kanposantura juatia tokau jakon eta sartu zan, kaka darixola, alde batera eta bestera begira".

**KAKA JATEN.-** Beldurrez, estu, larri. "Estaziñuan beti egoten dok trenan noiz helduko, atzera eta aurrera, kaka jaten".

## eskutitzak

### BAZKIDEEN NAN ZENBAKIAK BEHAR DITU ...ETA KITTO!-K

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarazko Zuzendaritza Nagusiak ...eta kitto! Euskara Elkarteak 'aktibitateen lehenetsuneko jarduerak' izendatu berri du. Horren ondorioz, gure elkarteari ekarpenak egiten dizkion pertsona orok diru ekarpen hori norberaren errenta aitopenean aurkeztu eta desgrabatzeke aukera izango du. Bazkideen ekarpenen araberako desgrabazioak izango dira eta horretara

rako gure bazkideen datuez gain NAN zenbakiak ere bidali behar ditugu Ogasunera.

Beraz, ekarpena desgrabatzea nahi izanez gero, zure NAN zenbakia (letra barne) marisol.etakitto@gmail.com helbidera bidali behar duzu edo, bestela, deitu 943 20 09 18 telefonora (Marisol).

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

### AZKEN ORDUKO BERRIA

Atzo goizean, 08.00etan ikuste-ko moduko istripua gertatu zen Ipuruan, Elgetarako bideak eta Indalezio Ojanguren kaleak bat egiten duten bidegurutze inguruan, foball zelai parean. Udaltzaingotik azaldutakoaren arabera, automobil bat galtzadatik irten eta, aparkatuta zeuden beste automobil biren kontra jo eta gero, guztiz irauli eta hankaz gora gelditu zen. Auto barruan bakarrik gidaria zihuan eta, zorionez, ez zitzaion ezer laririk gertatu.



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com) / [komunikabideak@etakitto.com](mailto:komunikabideak@etakitto.com) /

[publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com) **Elkartearen E-MAILak:** [elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com) / [normalizazioa@etakitto.com](mailto:normalizazioa@etakitto.com)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Gaizka Moralesek lagata

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Udaleku garbitzailliak protestan

Udalak kontratautako garbitzailliak martitzenaz geroztik egunero, 11.00etatik 12.00xetara alkarrateratziak egitten dihardue Untzagan, lan baldintzak aldatu detsezela-eta kejarazeko. Azaldutakuaren arabera, urtarrillaren Iian Eibarko eskola, jantoki, haurreskola eta haur liburutegiko garbitzaillieri kontratua aldatu egin detse eta, horren eragiñez, Masterclin enpresako bihargiñak izatera pasau dira, "eskintzen daben zerbitzuaren kalidadiarekin kalterako". Protestan eguzen bihargiñen berbetan,

"udalak eta Masterclin-ek gure lanaldixa murriztu eta aldatu egin dabe eta horrek eragin zuzena eukiko dau gure biharrin. Lanorduen murrizketia bakarrik umiak erabiltzen ditten tokixetan aplikau dabe. Ehundaka umek erabiltzen ditten komunak oiñ egunero garbitzen dittugu, baiña aurreantzia astian behin desinfektaziarekin nahikua dala erizten detse. Gaiñera, konpentsaziño modukua egitteko, kalian markesinak eta eskillera mekanikuak garbitzera bialdu nahi gaittue".



Urte barrixarekin kontratua aldatu detsela-eta, horren aurka protestatzeko, egunero alkarretaritzen dira. SILBIA HERNANDEZ

Gatazkak 30 bat andrari eragiten detse zuzenian eta politikuekin egindako billeretan oiñ arte ez dabe ezer konpondu. Halanda be, arazua ahal danik eta bizkorren konpontzia nahi

dabe: "Gure biharrin duintasunez egitteko baldintzak betetzia, baiño ez dogu eskatzen. Eibartar guztion artian pagatzen dogun zerbitzua ahalik eta egokixen bete nahi dogu".

## Autobus-begiraliaren greba amaittu da



Astebete eta erdi iraun dau autobus-begiraliaren grebak. SILBIA H.

Azken egunotan gurasuen automobilletan ikastolara atzera aurra ibilli diran umiak eguzte-nian normal hartu eben ikastolarako autobusa. Urtarrillaren 27tik greba mugagabian eguzen eskola garraioko begiraliak, euren lan baldintzak hobetzeko borrokan. Greba hori dala-eta, umiak eskolara juateko garraio zerbitzu barik egon dira egunetan, arazua noiz konponduko zaiñ. Astelehen arratsaldian Eusko Jaurlaritzaren

rekin bildu ziran Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako garraioko begiraliaren ordekarixak eta enpresak eta bertan akordiorako oiñarria hitzartu eben. Hori jakiñ eta segiduan, bertan behera geratu zan greba dealdixa. Lan gatazkak eskola publikuetan zerbitzua emoten daben enpresetako 500 bat bihargiñeri eragitten detse eta, greba zala-eta, 15.000 bat ikasle klasera juateko autobus barik egon dira.

## Eibartarrak sanblasak bedeinkatu zittuen

Urteroko ohitturari jarraituta, astelehenian eibartar mordua juan zan elizara, San Blas opillak eta harixak bedeinkatzera. Goizian goizetik hasitta, herriko elizetan horretarako mezak egin ziran



Herriko elizetan mezak egin ziran sanblasak bedeinkatzeko. SILBIA H.

egun guztian, baiña betiko lez San Andresen 11.00etan egindakak batu eban jende gehixen. Eta mezetatik urtetzia batek baiño gehixagok eliza pareko eskulturekin batera erretratua etaratzeko tartia hartu eban.

## Gure Esku Dago-ren ekitaldixak otsaillian

Gure Esku Dago izenekua erabagitzeko eskubidiaren aldeko ekintza, beste herrixetako adibidiari jarraituta Eibarren sortu dan herri ekimena da. Taldiak erabagitzeko eskubidiaren alde dihardu eta aldari horren inguruan herritarren atxikimendu billa dabil. Erabagitzeko eskubidia aldarrikatzeko, ekainaren 8xan gizakate baten bidez Durango eta Iruñea lotu nahi dittue eta, hori lortzeko, herritarrei dei egin nahi detse, "giza kate horretako kate-begixa" izateko. Katian parte hartu nahi dabenak aukera bi dakaz: Eibarko lantaldiarekin kontaktuan ipiñi (astelehenero, 19.00etatik 20.00etara Kulturalian batzen dira) eta egun horretan nun ipiñi biharko dan esango detse edo, bestela, interneten gure-

eskudago.net webgunian sartuta, norberaren datuak emon eta, eskualdia kontuan hartuta, automatikoki ibilbideko toki batzuk proposatuko jakoz, bat aukeratzeko.

Bixen bittartian, datozen egunotarako hainbat jarduera preparau dittue: bixar (zapatua) 13.00ian talde argazkixa egingo da Untzagan, hainbat eibartar ezagunekin. Otsaillaren 12xan, 19.00etan "Gazta zati bat" dokumentalaren emanaldixa egingo da Portalean, Dani Oiarbideren eskutik. Hillaren 19xan, 19.00etan ekimenaren inguruko hitzaldixa egingo da Portalean eta 22xan, 13.00etan, ahalik eta jende gehixen Untzagan batu eta, esku erraldoiak osatuta, eibartarren nahixa irudikatuko da.



Bixar 13.00ian talde argazkixa egingo da Untzagan, hainbat eibartar ezagunekin.

## autuan

### GIMNASIA MENTALA

Otsaillaren 17xan (astelehenian) Ipuruako jubilau etxian ikastarua hasiko dabe, memoriaria landu eta eguneroko gauzak errazago zelan gogoratu ikasi nahi dabenendako. Kursua 17.00etatik 18.00etara emongo dabe eta burua aktibo euki nahi daben edonork eukiko dau parte hartzeko aukeria. Plaza kopurua mugatua da eta izena emetoko 615738381 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, zuzenian jubilau etxian izena emon.



### LOKAL BILLA

Debabarreneko Kaleratzeak Stop alkartekuak billerak eta bestelakuak egitteko toki billa dabiz. Batenbatek lokalen bat lagatzeko moduan euki ezkeru, eurekin kontaktuan ipintzeko eskatu dabe. Horretarako 627 93 46 75 telefono zenbakira deittu leike edo stopdesahucios-bajodeba@gmail.com helbidera idatzi.

## Santaeskian urten eben abesbatzak

Martitzenian, Santa Ageda bezperan ohiturari heldu zetsen askok eta, horri esker, herrixan egun guztian entzun ziran martiriari eskindutako koplak ezagunak. Goizian batez be ikasliak jardun eben kantuan eta nagusixak, barriz, illuntzian urten eben santaeskian. Sostoa abesbatzak Toribio Etxebarrian hasi eban kalejiria eta handik Urkizuraino bajatu ziran kantuan. Ondoren, urtero lez, Auzokuak alkartekuak gonbidauta edarto afaldu eben. Kontrako ibilbidia egineben Kaleetan Kantuz abesbatzakuak: Urkizuko iturrixan alkartu eta kantuan erdialderuntz kalejiran juan ziran. Eta Eibarko Kantuzaleak, barriz, Ipurua aldiari kantu-kantari ibilli ziran.



Goian, Kaleetan Kantuz abesbatza taldekuak. Behian, Sostokuak. SILBIA H.



## asteko 1'2 milioi datua

euro gastatzen ditu udalak urtian edifizio publikuen energia pagatzeko: 986.652 euro elektrizidadian eta 309.669 euro konsumo termikuan. EVE-k proposatutako neurriekin konsumua %28'37 bajauko litzake.

## Neguko beherapen azokia

Datorren eguaztenian hasi eta barixakura arte, Eibar Merkataritza Gune Irekia alkar-teko dendarixak Toribio Etxebarria kalera neguko eskintza berezixak etarako dittue, karpak babestutako postuetan merke-merke saltzeko. Goizeko 10.00etatik gabeko 20.00etara zabalduko dabon azoka berezixan 21 establezimenduk hartuko dabe parte: Cedry, De Capricho, Gloss gazte moda, Gratzina, Guby neskak, Guby mutillak, Lide, No Comment, Nona, Quetzal, Xtrem, Ikusimakusi, Kofiña, Txukuna, Ttiki, Errebal kirolak, Etxedreams, Burbujas y Mas, Katetxo, Farmalur eta El Corte Ingles.



Datorren asteko eguaztenetik barixakura arte egongo dira neguko eskintza berezixak T. Etxebarrian. LEIRE ITURBE

## Eskubide Sozialen Kartaren aldeko agerraldixa

Eguazten arratsaldian Kulturalian egindako agerraldixan, Euskal Herriko beste hamaika tokitan lez, Eibarren be eskubide sozialen kartia lantzeko taldia sortu dala emon eben aditzera. Uda baiño lehen ekin zetsen Euskal Herriko eskubide sozialen kartia idaztiari eta honezkero hamabi bloketan banatutako zirriborrua prest dago, ekarpenak egin nahi dabonak lantzeko moduan eta Eibarren horretan hasitta dagoz hainbat lagun, zirriborruak

proposatzen dabena aztertu eta, egoki ikusiz gero, ekarpe-

nak egitteko. Lanketa prozesuan inflexio puntua egingo da



Haraiñegun Kulturalian egindako agerraldixaren irudixa. SILBIA H.

hillaren 15ian, 11.00etan hasitta eta, horretarako, eskubide sozialen aldeko plazia bihurtuko dabe Untzaga. Aurreratu dabenez, "egun horretan, musikariak eta pintxuak lagunduta, eskubide sozialen kartia kalera etarako dogu. Asmua, zirriborruak eskubide bakotxaren gaiñian diñuana, ordurako jasota eukiko dittugun ekarpenekin batera paneletan ipintzia da, goizian edonork bere ekarpenak egitteko aukeria euki deixan".



## Jendetza batu eben Lagun Taldekuak

Lagun Taldeak lehen emanaldixarekin izandako arrakasta errepikatu eban bigarren zapatuan, Hezkuntza Esparruko taula gaiñian eskindutako "¿Quién ha sido?" izenburuko ikuskizunarekin. Betiko moduan, emanaldi bixetarako sarrera guztiak saldu ziran eta publikuak zeñi ikus-

kizunian parte hartzen jardun eben artistak ondo baiño hobeto ibilli ziran, misterioz betetako istorixua antzerkixa eta dantza bittartzet jendiarri kontatzen. Ikuskizunian etaratako erretratuen bilduma Facebook-en, Etakittoaldizkaria-ren orrixan topauko dozue.



*Sasoi honetan gero eta urriagoak diren berri horietako batek postu gintuen abenduaren amaieran: Mondragon Korporazioko DanobatGroup kooperatiba taldeak erreminta-makinaren sektorean inoiz lortu den eskaririk handiena lortu zuen, 103 milioi eurokoa, Australian eta Indian egin beharreko hiru proiektuekin. Xabier Alzaga eibartarra DanobatGroupeko Railways alorreko zuzendaria da, hau da, ferrokarrilen arloko arduraduna. Zuzenean parte hartu du kontratuetan.*

**XABIER ALZAGA (DanobatGroup):**

**“Pozik gaude, baina ez dugu Euskadi salbatu”**

**- Zenbaterainoko inplikazioa izan duzu eskari handi horretan?**

Tren edo ferrokarrilen arduraduna naizen aldetik, merkatuaren arloko eskaintzak nire esku egon dira. Australiara ere joan behar izan dut, nora gindoazen zuzenean ezagutzeko. Ez gara asko esparru horretan gabilztzanok eta arduraz jokatu beharra dago.

**- Tamainaz aparte, zein ezberdintasun ditu azken eskaera horrek?**

Hiru proiektuetatik bat Indian eramango dugu aurrera eta beste biak Australian. India-koari dagokionez, aurretik ere antzeko proiektuak egindakoak gara eta DanobatGroup-ek Pune-ko delegazioan lantalde teknikoa du. Beste biena guztiz desberdina da: geografikoki jauzia emateaz gain, fabrikazioan baino gehiago mantenimenduan jardungo baitugu.

**- Kuantitatiboki argi dago operazioaren tamaina. Kualitatiboki ere jauzia dakar?**

Bai eskatutako perfiletan, bai lan egiteko eratan, mundu desberdinarekin egin dugu topo. Burokrazia asko dago tartean eta paperak, gainera, nahiko halamoduzkoak dira askotan. Australian eskatu digutenak, baina, bere prozedimentuak ditu eta egin beharrekoa ingeniari-taldeen etabar zorrotasun handiagoa eskatzen dute. Perfil handiko erronkei egin behar diegu aurre.

**- Lanpostuak sortzea ekarriko du lan horrek? Ala, batez ere, aldatetak zuen lan arloetako antolakuntza eta prozesuetan?**

Hasteko, antolakuntza behintzat, tren edo ferrokarril unitatearen handitzea ekarri du. DanobatGroup taldearen barruan ere, Mondragonen banean, hainbat aukera eskaintzen

ditu. Zenbakietatik haratago, hainbat abantaila izango dira gurean eta, hortik aparte, hornitzaileengan ere izango du zeregina, makina eta zerbitzuak kanporatze bidean.

**- Ohikoa duzue kanpoan lan egitea? Bide berriak zabalduko zaizuelakoan zaude?**

Orain arte Errusian, Txinan eta India jardun izan dugu, batez ere: munduan gora gehien egin duten herrialdeak dira eta, dagoeneko, proiektu handiak gauzatu ditugu hor. Gure produktuetan asko espezializatu gara eta beti egon gara zabalik ferrokarrila non garatzen zen bertan izateko. Hemendik aurrerakoak badirudi Hegoamerikara eta Asia ingurura zabalduko dela, tradizio gutxiago dituzten herrialdeetara. Mundu horretan tren-burbuilak funtzionatzen du asko: Espainian ere izan zen sasoi batean, baina hori iragana da.

**- Indiar eta Australiara joatea eskatuko dizute proiektuok?**

Argi dago: hasieran, behintzat, han egon beharra dugu. Proiektuei bidea egiteko beharrezkoa da gertuko jarraipen hori eta sasoiaren sasoiko egokitzeak eta aurreikusitako planen betetzeak. Aste honetan, esaterako, bezeroa dugu gure artean, hona etorrita: guztiz mesedegarria, jakina.

**- Non aurkitu dute bezeroek, zure ustez, eskaini duzuenaren balio handiena? Zergatik hautatu zaituzte?**

Argi dago estrategian asmatu dugula, aurretik Australiako beste enpresa batekin sinatutako hitzarmenari esker: han ezarri ondoren, bertako erronkei zelan eutsi diegun ikusi dute. Europatik ezingo genuke hori egin. Gurekin lehian zeuden enpresak ez zi-

ren nolana hikoak, alemaniarrek badakigu eta nola egiten duten lan. Hala ere, azkarrak izan gara, ditugun puntu indartsuenak erabiltzerakoan. 2005etik dihardugu trenbide munduan eta badugu landutako merkatu estrategia aproposa. Espezializazioa funtsezkoena izan da, guretako ez baita gauza berria: teknologia berriak eta garapena gure-geureak ditugu.

**- Eibarrek, eskualdeak orokorrean hartuta, horren onurak igariko ditu?**

Batzuek gertuago nabarmenduko dituzte abantaila horiek. Hala ere, inguruko jendearentzat argi dago ez dela kalterako izango. Makina-erremintakoa mundu tradizionala da, teknologia helduena deitzen zaiona; horregatik, operazio honekin traslazioa egiten dugu etorkizunerantz. Arlo horretan Taiwan eta Txina modukoei egin behar izaten diegu aurre, koste baxuagoko herrialdeei. Mantenimendu arloan-eta, hemengo injineruen perfilekoek hori dute irtenbidea.

**- Zuek nabaritu duzue krisirik?**

Nahi baino gehiago. Hala ere, egia da ez gaituela larregi ahuldu. Eta urte hau lasaigoa izango dugu. Baina krisiaren globalizazioak denok hartzen gaitu; horregatik, gure tokia aurkitu behar dugu, bezeroak nahi duenari egokitu, flexibleagoak izan... Transformazioa beharrezkoa dugu.

**- Lan egiteko era bati eutsi, ezta?**

Batez ere, umiltasuna aipatuko nuke: hori da erakutsi behar duguna. Berri honekin ematen du Euskal Herria salbatu dugula, baina ez dago halakorik. Etor dakigukeen erronkari adi egon beharra dago beti.

## Urbateko igerilariak txapelketetan murgilduta

Biren kasuan, gainera, estatu mailan, aurreko asteburuan Madrilen lehiatu baitzuten infantil eta junior mailako komunitate erkidegoen arteko txapelketan: Ander Izagirre eta Ior Urkiri Euskadiko selekzioarekin izan ziren parte hartzen eta baita seigarren postua lortu ere Kataluniak irabazitako lehian.

Gerturago etorrita, Bergaran Gipuzkoako neguko VI. saria jokatu zen, partizipazio mailako eta igeriketa egokitutakoekin. Han izan ziren Maria Alaez, Marina Bedia, Maddalen Galdos, Julen Quincoces, Ander Romarate, Ander Santos, Jone Urizar eta Nerea Ziaran, hainbat probata aurrenekoen astean amaitzea lortuz. Aste-



Bergaran lehiatu zuten Urbateko igerilariak.

buru honetan, bestalde, Gipuzkoako infantil, junior eta absoluto mailako txapelketak jokatu dira Azpeitian.

## Liderraren eta azkenaren arteko aldea eskubaloian

Somos Eibarrek erraz irabazi zion (37-16) Romo Indupimeri, euren artean dagoen aldeari epaileek eskainitako laguntza ere tartean zela. Bizkaitarrek bederatzikaleratze jasan behar izan zituzten; eibartarrek, hiru bakarrik. Hamabi minututan jokalaria bat gehiagorekin jokatu ahal izanak golak bata bestearen atzetik sartzea ekarri zuen: Ruben Cruzek 7 lortu zituen, Lander Casadok eta Eneko Garretxanak seina eta Jon Uriartek eta Unai Ibaibarriagak bosna. Domekan Tolosara joango da Fernando Fernandez taldea, ondoren Corrales etorriko da Ipurua eta, hurrengoan, Zaragozan Stadium Casablancari egingo dio aurre: hiru neurketa zail eibartarrentzat.



Ruben Cruzek zazpi gol lortu zituen.



Ipurua taldeko eskola mailako boskotea.

## Ipuruako gimnastek eskola denboraldia hasiko dute bihar

Gipuzkoako gimnasia erritmikako Federazioak antolatuta, Eskola Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatuko da bihar, goiz eta arratsaldean, Bergarako Ariznoa kiroldegian. Ipuruak bost talde izango ditu lehiaketetarako eta beste lau (benjamin mailako-

ak) erakusketetarako, guztira ere 9tik 18 urtera arteko 50 bat neskekin, denak ere Tania Nagonaia eta Susana Prietoren aginduetara. Oraingoan A mailako eskolarrak eta amateurren hartuko dute parte; hurrengo asteburuan, bestalde, B eskolarrak eta benjaminak.



## Aitor Hernandez erdipurdi ziklo-kros Mundialean

Ermuko txirindulariak 39. postuan amaitu zuen Hoogerheiden jokatutako ziklo-kros Mundialean. Hasieran 20 onenen artean sartu zen, baina ez zuen pedalkolpe egokirik aurkitu eta atzeraka joan zen, Stybar txekiarrarengandik oso urruti geratzeraino. Omega Pharma - Quick Step taldeko irabazlearen atzetik Nys, Mourey eta Van der Haar sailkatu ziren. Orain, Mundiala hirugarren aldiz joko-

tu eta gero, Specialized-Garmar taldeko ermuarrak beste astebete egingo du Belgikan, hiru probatan parte hartzeko. Hurrengun Maldegem-en jokatu zuen lehenengo eta 16. postuan amaitu zuen, erorketa batentatik hain gertu izan zuen Top-15en artean sartzeko postu bakarrena. Asteburuan CI mailako bi probekin amaituko du denboraldia, tartean mundu onenekin lehian.



## Deltecoko triatleta bi Espainiako txapelkun

Aurreko zapatuan Reinosan jokaturako ne-guko triatloiren Espainiako txapelketan, Delteco Eibar Triatloiko ordezkariak lan bikaina egin zuten. Horren adibide da 23 urtetik azpikoek eta 50-54 urtekoen mailatan eskuratutako txapelak: Pello Osoro eta Edu Oiarzun izan ziren proba bietako garaileak. Txomin Osoro bosgarren sailkatu zen junior mailan eta Ane Ziaranek ere parte hartu zuen euri eta elurpean, baldintza gogorretan, jokaturako proban.

### Ermuko duatloia bihar

Euskadiko duatloi zirkuituko lehenengo proba jokaturako da bihar Ermuan, 16.00-etan hasita. Ostots Triatloi Kirol



*Edu Oiarzunek eta Pello Osorok ezustekoa eman zuten Reinosan.*

Klubak antolatutakoak irteera, helmuga eta boxeak Cardenal Orbe plazan kokaturako dira. Bost kilometro antxintxiketan,

20 bizikletan eta beste bi eta erdi berri-  
ro antxintxiketan egin beharko dituzte parte-hartzaileak.



*Flores eta Elbakali Kalamuako ordezkariak, Manu Agirrerren ondoan, brontzezko dominekin.*

## Kalamuako judokak sasoi betean

Domekan Pasai-Donibanen jokaturako junior mailako Gipuzkoako txapelketan, Kalamua judo klubeko Nekane Muguruzak urrezko domina irabazi zuen 70 kilotik beherakoen arloan eta Josu Floresek eta Abderrahim Elbakalik (biek 60 kilotik behera) eta Julen Ramonek (90 kilotik behera) brontzezko bana lortu zuten. Egun berean klubeko boskote batek Calatayuden hartu zuen parte jiu-jitsu modalitateko

torneoan, hemendik aurrera datozenezko proba moduan.

Bihar, bestalde, Nekane Muguruzak eta Eneko Lores, gaur egungo Espainiako txapelkunak katetan, Fernando Blas munduko azpitxapelkunak antolatutako ikastaro aurreratuan hartuko dute parte. Eta etzi kadete mailako Gipuzkoako txapelketa jokaturako da Hernaniko kiroldegian: hor izango dira Mugu-ruza, Ramon eta Iker Martinez.



**Jorge Imaz Bolinaga**

---

**KOMUNITATEEN  
ADMINISTRATIOA**

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.  
Tlf. 943 53 03 03

[imazjorge@hotmail.com](mailto:imazjorge@hotmail.com)



**eitek**  
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

**Marka onenetakoen  
Zerbitzu  
Tekniko onena**

[www.eitek.net](http://www.eitek.net)



**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

*...eta kitto! aldizkarian duzu  
aukera (943 20 67 76)*

## berriak

## MENDIA

Klub Deportiboko Mendi Batzordeak antolatutako jardunaldien artean, atzo Alex Txikonek eskainitako jardunaldiak jarraipena izango du datorren egunean Zigor Arteagaren "Arriskua mendian: saihestu edo aurre egin" hitzaldiarekin. Hori ere 19.30etan hasiko da; jarraian pintxo-potea egongo da. Hurrengo bi egunetan Tito Agote (mendi bizikleta) eta Oihana Kortazar (mendi lasterketak) izango dira.

## XAKEA

Gure herriko xake arloko talde biek etxean, hau da, Deporren jokatu dute biharko jardunaldia. Maila gorenekoak Billabona A hartuko du eta 2. mailakoak Billabona C. Azken asteburuan kanpoan izan ziren eta binako berdinketa lortu zuten Gipuzkoako Taldekako txapelketaren 4. jardunaldian. Deporreko A taldeak Gros B-rekin berdindu zuen (Bastida eta Julen Garro garaile) eta B taldeak Legazpian Santikutz A-rekin (Arana eta Larreategi irabazle).

## Areto-foballeko liderren arteko lehia etzi

Concepto Egilek Pinseque hartuko du domeka eguerdian Elgoibarko Olaizaga kiroldegian lidergoan bakarrik geratzeko asmoarekin. Une honetan talde biak berdinduta daude sailkapenaren goian, atzekoei hiru puntuko aldea kenduz. Pinsequek hiru hilabetetan ez du partidurik galdu eta behetik gora dator indartsu; Debabarreneko taldeak, bestalde, azken jardunaldian Fuenmayorren jasotako porrota (5-4) ahaztu eta lehengo bidera itzuli nahi izango du.



Zaletuen animoak beharko dituzte Concepto Egilekoek.



Bengoetxea kantxetara bueltatzen da bost hilabete jokatu gabe egon ondoren.

## Jaialdia gaur Astelenan Deporreko pilotariek

Beste hiru pilota partidu izango dira gaurko honetan Kate-drelean. Jaialdia hasteko, gazte mailan Arrillagak (edo Velascok) eta Urionabarrenetxeak Zumarragako bikotearen aurka jardungo dute. Jarraian, Narbaizak eta Izagirrek Elgoibarko bikotea izango dute aurrez-aurre. Eta, amaitzeko, helduen mailan Arribillagak eta Bengoetxeak Elgoibarko Arrizabalaga eta Txurrukaren kontra jokatu dute. Hiru

partiduak Udaberriko Torneoaren barruan jokatu dira, arratsaldeko 19.15etan hasiko den pilota jaialdian.

Aurreko asteburuan, bestalde, Klub Deportiboko bikote bakarrak irabazi zuen, erraz gainera: Agirresarobe-Agirrebeña bikotea 22-5 nagusitu zitzaion Alde Zaharreko Ruiz-Millani. Ez zuten zorte bera izan Narbaiza-Izagirre, eta Unamunzaga-Arribillaga bikoteek, galtzaile azken jardunaldian.

## Eibar Foball Taldearen 75. urteurrena (1940-2015)



Eibar

Munduan

# 32'7 millioiko AURREKONTUA kontrako boto barik onartuko dabe



Otsaillaren 14an, barixakuan, 09.30xetan egingo dabe aurrekontua onartzeko plenua udaletxeko aretuan. Oinguan ez da sorpresarik egongo botaziñuan. SILBIA HERNANDEZ

**M**iguel de los Toyos alkatiak aurreko aste-ko barixakuan azaldu ebanez, "aurrekontu proposamena beste alderdixeri pasau eta gero egitten dittugun billeretan, ahal dan neurrian beti ahalegintzen gara oposiziñuak egindako proposamenen inguruan ados ipintzen. Izan be, aurrekontuak zenbat eta babes haundixagua izan, orduan eta hobeto dala pentsatzen dot". Hori esan ebanian, alderdixen arteko negoziaziñuak azken txanpan eguzen: sozialistak PP alder-



Aurrekontu-proposamenak ahalik eta babes haundiña eukitzeko, alkatiak beste alderdixekin billerak egin dittu. SILBIA H.



Irisgarritasuna hobetzeko Jaurlaritzatik jasoko daben diruari esker, igogailu barrixak egingo dittue. LEIRE ITURBE

dixarekin egonkortasunerako hitzarmena siñatuta dakanez, PP-ko ordezkari bixen aldeko botua jasoko dabela badaki. EAJ alderdixarekin, barriz, egun batzuk lehenago lotu zittuan kontuak: jeltzaliak aurrekontu proposamenari egindako sei zuzenketa onartu zetsazen eta, horrekin pozik, EAJ-k botaziñuan abstenziñuaren bi-diari segiduko detsala emon eban aditzera urtarrillaren 28xan. Eta oin dala astebete EH Bildurekin ados ipintzia oindiñok posible ez bazan be,

Datorren asteko barixakuan, otsaillaren 14an goizeko 09.30xetan egingo da 2014rako udal aurrekontua onartzeko plenua udaletxian. 32'7 millioi euroko presupuestua izango da eta, iazko 28'9 millioi euroko aurrekontuarekin alderatuta, %13ko igoeria egon da. Azkenaldiko aurrekonturik altuena izatia posible egin dabenak, herriko irisgarritasuna hobetzeko Eibarko Udalak Eusko Jaurlaritzatik jasoko dittuan 3'1 millioiak dira. Plenorako astebete faltuta be, botaziñuaren emaitza aurreratzeko moduan gaoz: PSE-EE eta PP alderdixak aldeko botua emongo detse aurrekontu proposamenari eta gaiñontzekuak, EH Bilduk eta EAJ-k, abstenidu egingo dira, aurrekontuaren inguruko negoziaziñuetan hainbat puntutan ados ipintzia lortu dabe-eta. Aspaldiko partez, udal aurrekonturako proposamenak kontrako boto barik egingo dau aurrera.

alkatiak "azken momenturaino" ados ipintzen ahaleginduko zirala aurreratu eban eta aste honetan, astelehen illuntzixan emon eban aditzera alkatetzatik Bildurekin egunian bertan egindako billeran lortu ebela ados ipintzia. Adostasunerako hitzarmenak jasotako puntuen barri emotiarekin batera, Bildukuak be abstenidu egingo dirala aurreratu eban erredakziñora bialdutako idatizixan.



*Oposiziñoko alderdixekin hitzartu dittuen zuzenketak aurrekontuari gehitu eta, horri esker, barixakuko plenuan abstenidu egingo dira EH Bildu eta EAJ-ko ordezkariak. SILBIA H.*

### Zirriborruaren oiñarriak

Aurrekontuaren zirriborrua lantzerako orduan hainbat irizpideri begiratu detsela azaldu eban alkatiak aurreko asteko prentsaurrekuan: "Bizi dogun errealidade sozioekonomikua derrigortuta lehentasunak ezarri bihar dira nahitaez. Horrekin batera, krisixak eragindakueri laguntzeko udalak eskin-



*600.000 euro dagoz herrixan obra txikixak egitteko.*

tzen dittuan zerbitzuetan kalidadiari eutsiko jakola ziurtatu biharra dago. Eta, zelan ez, herritarri parte hartzeko eskindutako bidietatik aillegau jakuz proposamen eta bestelakueri ahal dan neurrixan erantzun bihar detsagu. Eta hortik aparte, jakiña, ezin geinke ahaztu azken udal hauteskundietan sozialistak presentau

## EH BILDU ETA EAJ-REN ABSTENZIÑORAKO KLABIAK

*Datorren astian 2014rako aurrekontua onartzeko plenuan, PSE-EE eta PP alderdixak aldeko botua emongo dabe eta EH Bildu eta EAJ-kuak, barriz, abstenidu egingo dira. Hortaz, aurrekonturako proposamena kontrako botorik jaso barik onartuko dabe oinguan. Hori holan izateko arrazoia, azken egunotan alderdixen artian egindako billeretan, Bildu eta jeltzaliekin adostu dittuen hainbat puntu proposamenari gehitu detsazela da. Jarraixan, bakotxarekin adostu dittuenean zerrendia irakur zeinkie.*

### EAJ/PNV-rekin adostutakuak

- 1.- Untzaga-Txaltxa Zelai eta Eibarko Txikito-Txaltxa Zelai bitartian eskillera mekanikua estaltzia. Horretarako biharrezkua dan dirua akzes mekanikuen hobekuntzarendako dagan partidatik hartuko dabe.
- 2.- Herriko hainbat tokittan oiñezkuendako jasotako pasabidiak egittia, ume eta elbarrituen aulkixekin-eta ibiltzia errazteko. Horretarako eguan partidari 20.000 euro gehitu biharko jakoz.
- 3.- Birjiñapen dagan etxian bizi diranendako kalera sartu eta urtetzia erosuagua izateko, gora eta behera daguaz eskillarak saihesteko aldapia egitteko aukerak aztertzeo konpromisua.
- 4.- Toribio Etxebarria kalia doaneko OTA sistemaa ezartzia, Errealgo aparkalekuan martxan daganaren adibidiari jarraituta. Tikitak emoteko hiru makiña ipintzeko eta kalia sistema barrirako moldatzeko 40.000 euroko gastua aurreikusida dabe.
- 5.- Arrateko aterpetxetik edo Usartzatik abiatuta, Memoria Historikuaen Ibilbidia seiñalatzan hastia eta proiektuan aurrera egitten segitzia.
- 6.- Jendia herriko kale eta parkiak garbi egoteko garrantzixaz jabetzeko kanpaiña egittia (6.000 euro).

### EH Bildurekin adostutakuak

- 1.- Eibarren Ekocenterra sortzeko bideragarritasun ikerketia egittia (18.000 euro). Ikerketia 2014ko ekaiñaren 30erako eginda egon biharko da eta, ikerketiak Ekocenterra sortzeko baldintza egokixak betetzen dirala azalduko baleu, Udalak Mankomunidadearekin batera 2015ian martxan ipintzia hitzartuko dau.
- 2.- Kale-argiztapena hobetzia eta, horretarako, partidari 72.120 euro gehituko jakoz. Aldaketak eta ikerketak zerbitzu batzordian aztertuko dira eta 2014ko abenduaren 31 baiño lehen egingo dira.
- 3.- Gertatu programarendako partida haunditzia (16.300 euro), Eibarko enpresa txiki eta ertaiñen kompetibidadia hobetzeko erronka teknologikuen inguruko proiektuetan erabiltzeko.
- 4.- ... eta kitto! Euskara Elkartearrekin Udalak dakan hitzarmeneko partidia igotzia (22.300 euro), Berbetan eta Euskara saillak egoki ikusten dittuan programak garatzeko aukeria izan deixan.
- 5.- Bakarrik bizi diran zaharrendako suaren kontrako sistemak ipintzia (40.000 euro). 2014ko abenduaren 31 baiño lehen ezarrita egon biharko dira.
- 6.- Errealgo proiektuaren harira, udal aurrekontuan ideienlehiaketia eta partehartzetza prozesua, bixak ordaintzeko dirua egon badago. Beraz, fase hori amaitzen dabenian, proiektua erredaktatzeko biharrezkua dan dirua gehituko jakola adostu dabe.
- 7.- Gure herrixan birziklapena ikertu eta horren inguruko hausnarketan biharrian jarduteko taldea eratuko da, Ingurugiro batzordiare barruan. Bertan sortutako proposamen guztiak Mankomunidadeari helaraziko jakoz, beti be helburua hondakiñen bilketia hobetzia izanda. Taldian, ordezkari politikuekin batera, GARDEN taldea be ordezkatuta egongo da.

## KONTUAN IZATEKO ZENBAKIXAK

- 2014rako 32.718.688 EUROKO PRESUPUESTUA onartuko dabe plenuan.
- **INBERSIÑUETARAKO 5'2 MILLIOI AURREIKUSI DITTUE.** Horren barruan Eusko Jaurlaritzak herriko irisgarritasuna hobetzeko proiektuetan erabiltzeko emon dittuan 3'1 millioi euroak dagoz. Batez be igogailuak ipintzeko (Amaña, Urki, Legarre eta Bista Eder-Eulogio Garate kalietan) eta lehendikan ipiñita dagozen eskillara mekanikuak bihar dittuen egokitzapenak egitteko erabiliko dabe diru hori.
- **OBRA TXIKIXETARAKO 600.000 EURO DAGOZ.** Diru hori auzorik auzo egindako bileretan jendiak azaldutako keja eta beste-lakueri erantzunda egin biharreko konponketak egitteko erabiliko dabe.
- **PRESUPUESTUAN LARRIALDI SOZIALETARAKO 294.000 EUROKO PARTIDIA JASO DABE.** lazkuarekin alderatuta (225.000 euro) %30eko igoeria egon da.
- **ENPLEGUA SUSTATZEKO EGITASMUAK LEHENTASUNA** izango dabe eta, horregaittik, atal horretarako igoeria %55-ekua izan da (iazko 290.000 euruetatik 450.000 euro-ra igo dabe partidia).
- **GARAPEN EKONOMIKUARI ETA BARRIKUNTZARI LOTUTAKO GAIXAK BE LEHENTASUNEZKUAK DIRA:** Berreibar, Markers, Gertatu, Ekingune eta beste hainbat proiektu sustatzeko 774.000 euroko partidia aurreikusi dabe (aurtengo 685.000 euroko partidarekin alderatuta, igoeria %13-kua da).

eben programiak jasotzen dituanak betetzeko geure gain hartu genduan konpromisua".

Aurrekontuak izan daben igoeriarekin pozik dagoz: "Eusko Jaurlaritzak udalari

emongo detsazen 3'1 millioi eurueri zor detsagu %13ko igoeria. Bestela, Jaurlaritzak

diru hori emon ezian, igoeria %2'5 ingurukoa izango litzake".

Edozelan be, alkatetzaren memorixiak amaieran jasotzen dabenez, "Gipuzkoako ekonomixaren errekupeziñorako lehen zantzuak finkatzeko itxaropena daukagu, jarduera ekonomikuak dakan gorako joeria indartuko dala eta, horri eskerrak, herriko famelixak gaur egunian jasaten diharduen zailtasunak gainditzen juateko moduan izango garala pentsatzen dogu. Holan, administraziñuak herriarrak dittuen premiñeri erantzuteko baliabide gehixago eukiko dogu. Baiña, bixen bittartian, asmo hori betetzeko gure esku dagozen baliabidiekin biharrian segi-duko dogu".



PSE-EE eta PP alderdixak egonkortasunerako hitzarmena siñatu eben legegintzaldi hasieran eta, horri segiduta, sozialistak ziurtatuta dake PP-ko ordezkari bixen babesia. SILBIA H.

# KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 urte Eibarko bizilagun-erkidegoekin konprometitua

Zerbitzua Gestioa Administrazioa

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**EUKI** zerbitzu inmobiliarioak

**ESPERIENTZIAK EMATEN DUEN KONFIANTZA**

www.euki.com Tel: 943 200 358

**FM** Funeraria-Ehortzetxe **Mugica**

**EIBAR**

**Beilatokia Funeuskadi Eibar:**  
Otaola, 27

**ELGOIBAR**

**Beilatokia:**  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

**943 20 19 51** [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

**Hamasei urteko eibartarrak oso argi dauka etorkizunean dantzan egiten jarraitu nahi duela. Nerea Lodosaren dantza taldean ikasten diharduen gazteak aurreko asteburuan Durangon estreinatu zen "Con los pies en las nubes" ikuskizunean dantzan egin zuen, Henrike taldekidearekin batera. Hirugarren eibartar bat ere izan zen taula gainean: Ernesto Barrutia aktorea.**

**- Noiztik diharduzu dantzan? Nola animatu zinen?**

Hamaika urte nituela, telebistan Fama dantza saioa ematen zuten eta, hura ikusita, nik ere dantzan egin nahi nuela pentsatu nuen. Amak Ipurua Dantza Garaikideko Nerea ezagutzen zuen eta, berarekin berba egin eta gero, klasera joaten hasi nintzen eta horretan dihardut oraindik ere, gustora. Hasieratik, zapatilak jantzi eta dantzan hasi nintzen momentutik argi ikusi nuen hori zela gehien gustatzen zitzaidana, hau da, dantzan egin nahi nuela.

**- Taldekide gehienak neskak dira, zergatik animatzen zarete horren mutil gutxi dantzarako orduan?**

Egia da oso mutil gutxi animatzen dela dantzarako, nirekin batera badaude beste gutxi batzuk, baina bolada batzuetan ni izan naiz taldeko mutil bakarra edo ia bakarra. Hala ere, taldean oso gustora nabil lehenengo egunetik eta mutil gehiago ez egoteak ez nau inoiz arduratu.

**- Saririk ere jaso duzu, ezta?**

Taldeko beste bi neskarekin batera, Ane Miren Barrero eta Marta Marinarekin 2010eko Bilbofit azokara joan ginen dan-

tzara eta, hirukote modura saririk jaso ez baguenen ere, nesketako bat eta ni dantzari onenaren sariarekin bueltatu ginen etxera, pozik.

**- Zaila da dantza munduan aurrera egitea?**

Bai, oso zaila da, baina niri aurrera egitea gustatuko litzaidake eta, ahal dudan bitartean behintzat, horretan saiatzeko asmoa daukat. Oraingoan, behintzat, ez daukat arazorik ikasketak eta dantza, biak batera egiteko.

**- Aurreko asteburuan Durangon ikuskizun musikala estreinatu zenuten. Zer moduz joan zen?**

Oso ondo irten zen dena eta jende asko joan zen ikustera, sarrera guztiak saldu zituzten. Ezustean jaso nuen bertan parte hartzeko deia, dantzarietako batek min hartu zuela eta, lagun batek joango nintzen galdetu zidan Gabonetan eta nik berehala baietz erantzun nion, harrezkero batez ere asteburuetan ibili naiz en-saiatzen. Antzezlanak dantzarria izan nahi duen neska baten istorioa kontatzen du eta, tar-teka, kontakizunari laguntzen dantza-koreografiak eskaintzen ditugu.



Gaizka Morales  
(DANTZARIA)

**"Dantzan egitea: hori da gehien gustatzen zaidana"**

www.aldatze.org

aldatze **Barriztatuta**

## 56 pianojole gazte domekako jaialdian

Domekan 12.00etatik aurrera Eibarko Gazte V. Piano Jaialdia eskainiko dute herriko ikasle gazteek. Juan Bautista Gisaso-la Musika Eskolak antolatutako kontzertuan, bertako piano ikasleekin batera Isabel Laspiur, Maite Bilbatua eta Maria Berriozabal irakasleekin dihardutenek ere hartuko dute parte, 56 pianojolek guztira. Asteburu honetan Coliseoan eskainiko duten emanaldia beroketa ariketa modukoa izango da gazteentzat, azken urteotako martxari jarraituta hurrengo asteburuan (otsailaren 15ean eta 16an) Andoaingo Piano Jaialdira joango dira-eta.

Kontzertuan jardungo duten piano bakarlariak A mailan (11 urtera arte) Jaione Artetxe, Lei-



Pianojole gazte bi izako ekitaldian. LEIRE I.

re Azkue, Ainhoa Bilbatua, Itsaso De Diego, Maddi Escudero, Asier Ferrero, Ariane Laura Garcia, Lucia Juarez, Cormac Laskurain, Joanes Lazaro-baster, Libe Legarreta, Nora Mendoza, Jone Rodriguez eta Adrian Salgado dira. B mailan

(14 urtera arte), Maria Alaez, Julen Baroja, Leire Cartagena, Paula Gallardo, Marina Laspiur, Julen Leturiondo, Miren Loiti, Jon Lopez de Gereñu, Iker Marcos, Imanol Miguel eta Miren San Martin. Eta C mailan (18 urte arte), Iñigo Carmona,

Aizpea Goitandia eta Elisabet Unamuno.

Pianoa lau eskutara eskainiko duten bikoteak, berriz, honakoak dira: A mailan, Ainhoa Agirre eta June Txurruka; Mainer Arrazola eta Nora Larreategi; Iker Etxabe eta Unai Marquez; Cecilia Laskurain eta Aitana Ronchetti; eta Leire Trebiño eta Ane Trebiño. B mailan, Josu Abalos eta Arianna Marcheras; Nerea Etxebarria eta Ainhitze Lasa; Xenia Ferreño eta Eider Martinez; Miren Ferrero eta Beñat Laskurain; Julen Pisa eta Martin Saro; eta Malen Txurruka eta Elene Varela. Eta C mailan, Jon Azkune eta Jorge Lahidalga; Arrate Baroja eta Maddalen Yarza; eta Amaia Lahidalga eta Andrea Perez.



Mahatma Gandhiren heriotzaren urteurrena gogoratu zuten beste behin La Salleko ikasle, irakasle eta beharginek.

## Jardunaldi bikoitza Aldatzen

Aurreko astean, "Aldatze danok gara" III. Ekitaldiaren aurkezpenean Marisabel Albizu zuzendariak eta Elena Aizpirtarte ikastetxean Pastoralaz arduratzen den irakasleak azaldu zuten, "gure ikastetxeak garai ezberdinak bizi izan ditu, baina beti ahalegindu gara hezkuntzarik bikainena eskaintzen". Howard Gardnere 'adimen anitzen' teoriari jarraituta, ikasketa-prozesua

osotasun gisara ulertu eta horretan parte hartzen duten alderdi guztiei erreparatzeko beharrean dihardute azken urteotan eta aurtengo ekitaldian adimen espiritualari arreta berezia eskaini diote. Barixkuan, "Pakea da bidea" izenburuari jarraituta, tradizio izpiritual ezberdinen arteko topaketa egin zuten, ebangelikoeekin, musulmanekin eta yoga lantzen duen taldearekin el-

## Bakearen aldeko olatua

Urtarrilaren 30ean bakearen eta biolentzia ezaren aldeko eskola eguna ospatu zuten Azitaingo La Salleko ikasleek, aurreko astean gogoratu zen Bakearen Aldeko Egunaren harira. Mahatma Gandhiren heriotzaren urteurrena gogoan, ikasle, irakasle eta beharginek bakearen aldeko keinua egin zuten ikastetxeko patioan: "Aurreko egunetan landutako sentsibilizazioarekin amaitzeko, bakoitzak bere onena besteei ematea irudikatzeko dinamikarekin batera, denek elkarrekin bakearen aldeko olatua osatu genuen. Ekintza sinboliko horrekin, bakebidean bakoitzak eskaini dezakeen hondar apurrak duen garrantzia adierazteaz gain, bakea elkarrekin lortu beharrekoa dela ikustarazi nahi izan genuen".



karlanean. Eta zapatuan, ate irekien jardunaldian, Innobasque-rekin batera Zirraren Ibilbidea egiteko aukera izan zu-

ten ikastetxera joandakoek. Ikastetxeko DJ-ek girotutako hamaietakoarekin agurtu zuten ekitaldia.



## IRUNE JAIO (Anemona proiektua) "Diseinu grafikoan bide berriak zabaltzen saiatu gara"

Ander Azpiatzuk eta Iruene Jaiok Anemona proiektua sortu zuten irailean. Ikasketek elkartu zituzten biak eta, behetik hasita, bide berria zabaltzen dute euren arloko diseinu grafikoan. Gure herriko aurtengo Aratoste kartelak eurek egindako irudia izango du protagonista. Diseinua beste ikuspuntu batetik irudikatzen dute eta sinestuta daude abangoardiaren lerroan izan daitezkeela. Eurekin harremanetan jartzeko: [anemonastudioa.com](http://anemonastudioa.com)

**- Zeintzuk zaudete oraindik ere hilabete gutxi dituen Anemona proiektuan?**

Gasteizen ikasten lau urte egin ondoren, Anderren eta bion arteko harremanaz baliatuz, inbertsio txikia egin eta irailean abiatu genuen proiektua. Diseinu grafikoaren mugak apurtzen dituen estudio tailerra da, beste disziplina batzuekin harreman sinbiotikoak sortu eta zerbitzu integralak eskaintzen dituen: aldi berean, estudio baten zentzu digitala eta tailerraren eskulana konbinatzen dituen. Formakuntza etengabea eta jakinmin asegaitzaren bitartez eboluzioan sinesten dugu, zerbitzu eta produktuetan berrikuntzak eskaini ahal izateko.

**- Zer motako zerbitzuak eskaintzen dituzue?**

Anemonak diseinu grafikoaren ikuspegi integrala dauka eta denetarik zerbitzuak eskaintzen ditu, beharizan guztiak asetzeko: irudi korporatiboa, publizitatea, diseinu editoriala, packagina edo eta seinaleetika bezalako diseinu grafiko produktuak, web programazio edo/eta serigrafia eta josketa bezalako jarduerekin konbinatuta, gainera.

**- Orain arteko ibilbidean, zelako lanak egin dituzue?**

Logotipoak prestatu ditugu, karteleria asko, web orrialdeak, programazioak, kanpainak, musika taldeentzako karatulak... diseinu grafikoaren esparru osoa hartu dugu. Kalera ateratzeko prozesuan, gainera, erropari ere aplikatu diogu diseinu hori, serigrafia-erekin. Euskal Jaian erropa salgai jarri genuen, Gabonetan zuzenean josi genuen...

**- Aratosteetako kartela zuena izango da. Zelan animatu zinteten?**

Dena erdi-bana egiten dugu eta bakoitzak pare bat lan aurkeztu genituen. Azkenean nirea zen batek irabazi du, baina nahiko ezustea izan da. Azken urteotako estetikaren apurta nahi izan dugu eta badirudi oraingoan okre koloreak nagusitzen ziren irudia gogokoagoa izan duela epai-mahaiak saturatutakoaren aurrean.

**- Pozik orain arte proiektuak hartu duen martxarekin?**


Ondo gabiltza, ohiko bideetatik desmarkatu bagara ere: eskualdean tartea badugula ikusten da. Horri heltzen diogu, originaltasunari, jakinda ere gero eta zailagoa dela jendea ustekabean harapatzea. Oinarri moduan atzera begiratzen badugu ere, egunerokoari eusten diogu. Hori bai: dena ez dago eginda.



Martitzenean Lander Garro izan zen moduan, Fermin Etxegoienek hartuko du haren lekukoa martxoaren 4an. MAIDER ARANBERRI

## Idazlearekin Harixa Emoten

Aste honetan, martitzenean Lander Garro egon zen Juan San Martin liburutegian, "Kontrarioa" lanaren gainean irakurleekin berba egiten, Antxon Narbaizak gidatutako tertulian. Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubekoek hilero egiten dituzte horrelako literatur-saioak, alde aurretik aukeratu duten liburua irakurri eta gero egilearekin horri buruzko gogoeta egiteko. Maiatzera arteko saioen egutegia zein liburu-zerrenda zehaztuta daude honetzeko: martxoaren 4an Fermin Etxegoien joango da, "Zinegotzia" lanari buruz jarduteko; apirilaren 8an, Garbiñe Ubedaren "Hobe isilik" lanaren txanda izango da; eta maiatzaren 6an Iban Zaldúa "Etorkizuna" lanaren inguruan berba egitera joango da. Liburute-giak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek elkarlanean antolatutako saioak liburutegi aldameneko gelan egiten dituzte, 19.00etan.



Otsailaren 1etik 28ra El Ambigu Tabernan  
Del 1 al 28 de Febrero en el Ambigü  
EIBAR 2014

## Otsailerako argazki erakusketak

Klub Deportiboko Argazki Taldekoek otsailerako erakusketa bi prestatu dituzte tabernetan: El Ambigu kafetegian Juan Ignacio Aizpuruaren argazkiak daude ikusgai eta Portalea tabernan, berriz, Juan Ramon Larrocearen argazki erakusketa ikusteko aukera dago. Biak hilaren amaiera arte, otsailaren 28ra arte egongo dira martxan.



## Adei Conde gauerditik aurrera Koskorren

Gaur gauerdian "pop-dance" musika jaun eta jabe izango da Koskor tabernan, Adei Cuendek kontzertua emango du-eta. Zumaian jaio eta orain Eibarren bizi den 24 urteko gazteak zuzenean jardungo berak idatzitako kantak zein beste artista ezagunen abestien bertsioak eskaintzen. 2009an Eusko Dance lehiaketa irabazi eta jarraian ekin zion musikagintzari, "Betirako", "Ero" eta "Egune-ko ilusioa" euskerazko abestiak kaleratuta eta lehen kanta biekina Euskadi Gaztea eta Euskal Herriko beste hainbat irrati-zerrendetan lehen posturaino ailegatzea lortu zuen. Iaz Run Down Entertainment konpainiarekin zuen kontratua bertan behera laga eta Uveefeuve Music etxearen eskutik Espainiako merkatura saltoa eman du. Abesti berriak Spotify eta iTunes moduko plataformaren digitalen bidez zabaldu ditu eta "Inpru-




dentos corazones" lehen singlea indar handiarekin sartu da estatu mailako zein Latinarmerikako irrati-tan eta laster bigarrena, "Quiero mas" kaleratuko du.

## Mikel Urkolaren lehen grabazioa kalean

CD-a kaleratzeko asmoa duela-eta, aurretik "Romantico y soñador" izenburuko maketa grabatu du Mikel Urkola abeslari eibartarrak.

Bederatzi abestik osatzen dute diskoa eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako hainbatek lagundu diote Urkolari: Ana Caballero, Se-

bastian Saldain, Nathali, Marta Zubiaurre, Miren Trueba, Andoni Mutilba, Gorka Jauregi eta Ander Barriuso aldamenen izan ditu abestiak grabatzean. Make-tarako batez ere maitasun kantak aukeratu ditu Urkolak. Musikariak dioenez, gitarrarekin 60-70 hamarkadetan idatzitako abesti mordo- eta horiei aterabideren bat emateko asmoz, maketa grabatzera animatu da. Esperientziarekin gustora dago eta 12-13 abestirekin CD-a grabatzeko proiektuari heldu dio.




## Otsaila betea Beleko tabernan

Bista Eder kaleko Beleko tabernak otsailerako hainbat jarduera antolatu ditu, gaur bertan hasita. Izan ere, arratsaldeko 19.00etatik aurrera Mursegok zuzenean jardungo du. Bihar (zapatua) proiektzio bi eskainiko dituzte: 17.00etan "Ataun of the dead" ikusteko aukera izango da eta 18.00etan, berriz, "Joxean's hil eben". Otsailaren 14 eta 15erako, bestalde, "Sushi gauak" prestatu dituzte. Hilaren 20an Ibone Garciak bere erakusketaren aurkezpena egingo du. Eta hilaren 25ean (martitzenean) "Hala bedi" liburu dokumentalaren aurkezpena hartuko du tabernak.

## laburrak

### KANTABRIAKO ETXEA

Kantabriako Etxeak bazkideei dei egiten die datorren otsailaren 16an (domekan) Jardinetan kaleko lokalean egingo den ezohiko batzarrera joan daitezene. Bilera 12.00etan hasiko da.



### OGI-DASTAKETA BETETA

Darorren martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta egingo den ogi-dastaketan parte hartzeko toki guztiak bete dira eta, beraz, ez dago izena emateko aukerarik. Artepaneko Txema Pascualek eta Juantxo Aranburuk gidatuko duten dastaketa 19.00etan hasiko da euskara elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuarte).

### IKASENPRESA

Otsailaren 12an, eguaztenean, 10.00etatik 14.00etara Ikasempresa azoka egingo da Untzagan. Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleek, Eibar-koek eta beste herrietatik etorritakoek, enpresa proiektuak aurkeztuko dituzte.



## Berbetan-erako izen-ematea zabalik

Euskeraz berba egiten hobetu nahi dutenek horretarako aukera bikaina daukate ...eta kitto! Euskara Elkartearen Berbetan programarekin bat eginda. Euskaldun zahar eta berriekin osatutako talde txikietan, astean ordubetez batzen dira euskeraz edozein gairi buruz jarduteko. Parte hartzeagatik ez da ezer ordaindu behar eta interesa dutenek 943200918 telefonora deituta edo zuzenean elkartearen bulegora (Urkizu, 11 solairuartera) joanda eman dezakete izena. Une honetan 100 bat lagunek dihardute Berbetan programan, 13 taldetan banatuta.



*Aurten osatutako talde baten irudia.*

## Antzerki Jardunaldiak hilaren 17an aurkeztuko dituzte

Eibarko XXXVII. Antzerki Jardunaldiak martxoaren 7tik apirilaren 10era bitartean izango dira.

Egitarau osoa ezagutzeko aurkezpen egunera arte itxaron beharko dugu, baina antolatzailerak aurtengo Antzerki Jardunaldietan izango diren hainbaten izenak aurreratu dituzte: martxoaren 10eko aurkezpenaren Els Joglars-eko Albert Boadellak "Decalogo para un teatro libre" izenburuko hitzaldia emango du. Horrez gain, egitarauan beste izen ezagun batzuk daude: Juan Tamariz magoa, Juan Echanovek zuzendutako "Conversaciones con mama" lanean parte hartzen duen Maria Galiana (Coliseoan, emanaldi bitan), Asier Etxeandia ("El interprete") eta Ara Malikian biolinjole ezaguna ("La orquesta en el tejado"), besteak beste, Eibarren izango dira.

Emanaldiak, betiko lez, Hezkuntza Esparruko aretoan eta Coliseo antzokian eskainiko dituzte. Egitarau osoa ezagutzera emateko aurkezpen ekitaldia, bestalde, otsailaren 17an egingo da eta sarreren alde aurreko salmenta handik egun gutxira, otsailaren 22an, zapatuan, hasiko da Coliseoko sarreran, 10.00etatik 16.00etara. Otsailaren 23 eta 24an ere bertan izango dira funtzio guztietarako sarrerak saltzen (10.00etatik 14.00etara). Horrez gain, interenetan [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) atarian sarrerak erosteko aukera izango da. Argibide gehiago behar izanez gero, [www.eibarres.net](http://www.eibarres.net) webgunera sartu, 943 254 465 telefono zenbakira deitu edo [secretariarresidencias@gmail.com](mailto:secretariarresidencias@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.



*Albert Boadellaren hitzaldiarekin hasiko dira Jardunaldiak.*

## Opera Divertimento-ren Txanogorritxu Coliseoan

Bihar zapatua, 17.00etan hasiko da "Caperucita Roja", Opera Divertimentok Coliseoan antzeztuko duen ikuskizun musikala. Lanak ordubete inguru iraungo du eta, umeentzat ez ezik, familia osoarentzat egokia dela adierazi dute. Sarrerak 5 euro balio eta ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago antzokiko txarteldegian erosteko aukera izango da. Txanogorritxuren ipuinean oinarritutako ikuskizunean aktoreek eta abeslariak elkarrekin jardungo dute, antzezlanean abestiak tartekatuta. Abestiak gaztelaraz kantatuko dituzte, baina gainerakoan aktoreek euskeraz egingo dute berba, testua moldatuta daukate-eta.



## Brasilgo bilakaera politikoa, banderen bidez

Gaur arratsaldeko 19.00etan Karlos Martinez durangararen "Ordem e progresso" proiektuaren inguruko erakusketa zabalduko dute Portalean, erakusketa aretoan. Martxoaren 2ra arte ikusgai egongo den erakusketa martitzenetik domekara bitartean bisitatu daiteke, 18.30etatik 20.30etara. Artista bizkaitarrak erakutsiko duen proiektuan, Brasilgo eraldaketa politikoen prozesuaren analisisa egin du, horretarako herrialdearen banderak erabilita. Izan ere, historian 22 bandera ezberdin izan ditu Brasilek eta, horiek aitzakiaz hartuta, artistak herrialdearen bilakaera politikoen inguruko bere irakurketa aurkeztuko die erakusketa ikustera doazenei.



# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAIA NILI, 30ian zortzi urte bete zenduazelako. Laztan haundi bat aitatxo eta amatxoren partez. Askok maite zaittugu.



Zorionak, LUAR, astelehenian 10 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa! Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, GARI, mutil haundi, haraiñegun 5 urte egin zenduaz-eta. Tximeleta, eskimal, behi eta metrailleta muxu asko.



Zorionak, EKAIN, atzo 7 urte bete zenduaz-eta. Familixakuen eta, batez be, zure arreba Hiarten partez.



Zorionak, SILVIA, astelehenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UNAI, gure etxeko mutillak atzo bederatzita urte bete zittuan-eta. Etxekuen eta, batez be, zure arreba Izaroren partez.



Zorionak, JULEN, atzo lau urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, LIBE, domekan sei urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IGOR, juan zan astelehenian sei urte bete zenduaz-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, ANER, haraiñegun 10 urte bete zenduaz-eta. Ama, aitta, aume eta aitxixaren partez.



Zorionak, AMATXO, haraiñegun urtiak egin zenduaz-eta. Muxu bat Txomin, Lucia, Mara eta Alainen partez.



Zorionak, NIKOLA eta SUA, bixar zortzi urte egingo dozuez-eta. Zeiñ haundi egin zarien!! Ondo-ondo pasa, bikote! Muxu haundi bana etxekuen partez.

## hildakoak

- Mercedes Barcons Vila. 84 urte. 2014-I-8.
- Jesus Pintado Ercilla. 88 urte. 2014-I-29.
- Jose Luis Larrañaga Ansola. 83 urte. 2014-I-30.
- Mercedes Ugarte Atxotegi. 86 urte. 2014-I-31.
- Pilar Garitaonandia Arruabarrena. 81 urte. 2014-II-1.
- Benjamin Novoa Borrajo. 66 urte. 2014-II-1.
- Ladislao Gil Baez. 82 urte. 2014-II-2.

## jaiotakoak

- Maria Blanco Gutierrez. 2014-I-25.
- Mouhamed Seye Diop. 2014-I-26.
- Doua El Akrouche. 2014-I-29.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

8an: 17.00, 19.45, 22.30

9an: 17.00, 20.00

10ean: 20.30

"La vida secreta de Walter..."

Zuzendaria: Ben Stiller



(2 ARETOAN)

8an: 17.00, 19.45, 22.30

9an: 17.00, 20.00

10ean: 20.30

"En la flor de la vida"

Zuzendaria: Nick Quinn



(ANTZOKIAN)

8an: 19.45, 22.30

9an: 20.00

10ean: 20.30

"La gran estafa americana"

Zuzendaria: David Russell



(ANTZOKIAN)

9an: 17.00

"Jelly T, Tarzan eskasa"

Zuzendaria: Michael Hegner



## BARIXAKUA 7

### KONTZERTUA

**19.00.** Mursego-ren kontzertua. Beleko tabernan (Bista Eder, 2).

### JAM SESSION

**20.00.** Zuzeneko musika saioa. Ez Dok tabernan.

### KONTZERTUA

**00.00.** Adei Cuende. Koskor tabernan.

## ZAPATUA 8

### HAUR PARKEA

**11.00/14.00 eta 17.00/20.30.** Bi eta hamabi urte bitarteko umeentzat. Astelena frontoian.

### GURE ESKU DAGO

**13.00.** Talde argazkia. Untzagan.

### ANTZERKI MUSIKALA

**17.00.** "Caperucita Roja", Opera Divertimentorekin. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

### PROIEKZIOAK

**17.00.** "Ataun of the dead".  
**18.00.** "Joxean's hil eben". Beleko tabernan (Bista Eder, 2).

### KIROLA FAMILIAN

**17.30-19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua Kiroldegian.

### KONTZERTUA

**23.00.** Moonlights Melodies. Ez Dok tabernan.

## DOMEKA 9

### PIANO JAIALDIA

**12.00.** Eibarko Gazte V. Piano Jaialdia. Coliseoan.

### KIROLA FAMILIAN

**17.30-19.30.** Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua Kiroldegian.

## ASTELEHENA 10

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

## MARTITZENA 11

### IKASTEN

**10.00.** "Mujeres escritoras, siglos XVIII, XIX y XX" hitzaldia. Jose Domingo. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Nola errieta egin gure seme-alabei modu arrakastatsuan" hitzaldi irekia. J. A. Mogel ikastolan.

### OGI-DASTAKETA

**19.00.** Artepaneko Txema Pascual eta Juantxo Aranbururekin. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11).

## EGUAZTENA 12

### IIKASENPRESA

**10.00-14.00.** Lanbide Heziketako ikasleen enpresa-proiektuak erakusteko azoka. Untzagan.

### IKASTEN

**10.12.** Mendi-ibilaldia: Kilimon. Trenaren irteera-ordua Ardantzatik (Estaziñotik, 10.14etan).

### GURASOAK MARTXAN

**11.00.** "Cómo reprimir a los hijos e hijas de forma eficaz" hitzaldi irekia. La Salle Isasi ikastetxean.

### GURE ESKU DAGO

**19.00.** "Gazta zati bat" dokumentala, Dani Oiarbideren eskutik. Portalean.

## EGUENA 13

### IKASTEN

**10.00.** "La España islamica" hitzaldia, Urko Barrosekin. Armeria Eskolan.

### TAILERRA

**10.00.** "Proba psikoteknikoetarako entrenamendua" lan bila dabilzatenendako. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**11.00.** Dantza entsegua, Kezkakoekin. Portalean.

### BERRIBAR KULTURALA

**19.00.** "De la catalogacion del patrimonio al paisaje industrial" hitzaldia, Beatriz Herrerasekin. Portalean.

### MENDI JARDUNALDIA

**19.30.** Arriskua mendian: "Saihestu edo aurre egin" hitzaldia, Zigor Arteagaren eskutik. Klub Deportiboan.

## ikastaroak

### ✓ Ur Sorospen ikastaroa

**Noiz:** Otsailaren 8tik martxoaren 16ra, zapatu eta domeketan, 09.30-16.00 (60 ordu). Ipurua kiroldegiko igerilekuan. **Izen-ematea:** Eibar-Ermuko Gurutze Gorria (autopistako peajea) eta 943-176248.

### ✓ U Photoshop argazkilarientzat (oinarrizkoa)

**Noiz:** Martxoaren 10, 12, 17 eta 19an (19.30-21.30). **Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte, astelehenetik eguenera 17.00-19.00, 943-202299 edo arratekultu@gmail.com (30 euro; 25 euro Kultuko bazkideentzat).

### ✓ Fandango eta arin-arin

**Noiz:** Martxoaren 4tik maiatzaren 20ra. Martitzenero, 19.00-20.30, Kultun, 1. solairuan. **Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte, astelehenetik eguenera 17.00-19.00, 943-202299 edo arratekultu@gmail.com (35 euro; 30 euro Kultuko bazkideentzat).

## HOROSKOPOA

### ARIES

Apurtu itzazu iraganeko oroipen txarrak eta ekiozu aurrean duzunari. Atzekoa ahaztuta, oraina zorionez biziko duzu.

### TAURUS

Hobe aste honetan sukaldaria hurbiltzen ez bazara, ez zarelako fin ibiliko. Lagaizu besteen eskuetan bazkari eta afariak.

### GEMINI

Egun batean etxean ahaztuko duzu aterkia eta blai eginda amaituko duzu. Okerrera da gaixotu egingo zarela.

### CANCER

Zoratu egingo zaituzte: hona joateko, gero bestera... Jaramonik ez egitea da egin dezakezun onena. Zureari eutsi eta kitto!

### LEO

Ez duzu uste denbora gehiegi pasatzen duzula facebook-ean? Probetxuzko beste edozertarako erabiliko bazenu, hobe!

### VIRGO

Shakira zarela uste duzu eta gerriak jasango du zure imajinario ahaltu hori. Robot baten antzera ibili beharko duzu.

### LIBRA

Lagun batek kontatuarekin amorru bizian jarriko zara. Egoera baretzean tontokeria dela ohartuko zara. Hori bai lasaitasuna!

### SCORPIUS

Ezin duzu dena kontrolpean eduki; beraz, laga besteek trankil bizitzen. Inork ez du zuk esandakoa zertan bete, ezta?

### SAGITTARIUS

Gauza bere lekuan laga. Bestela, ez duzu aurkituko. Edo orduak emango dituzu bilaketan. Ordenatuagoa izan beharko!

### CAPRICORNIUS


Beti ikasi dezakezu gauza berri bat. Aste honetan ere zerbait garrantzitsua jakingo duzu, etorkizunerako balio handikoa.

### AQUARIUS

Kasualitate hutsa izango da, baina leku aproposan une aproposan egongo zara. Hori bai izango dela zorte onekoa izatea.

### PISCIS

Aratosteak oso gustoko ez badituzu ere, ondo ibiliko zara gero eta gertuago diren horietan. Piura ederra eramango duzuna.



## erakusketak

- ✓ **Otsailaren 10era arte**  
**MYCHEL TYTGAT-EN** "20 obras 40 años"  
margo, akuarela eta marrazki erakusketa.  
*Topalekuan.*
- ✓ **Otsailaren 16ra arte**  
**PATRIK GRIJALVO MILLOIS-EN**  
argazki-collageak. *Portalean.*  
**MARI CARMEN PIRIZ-EN** pintura erakusketa.  
*Untzaga jubilatuta etxean.*
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**  
**JUAN IGNACIO AIZPURIAREN** argazki  
erakusketa. *El Ambigu tabernan.*  
**JUAN RAMON LARROCEAREN** argazki  
erakusketa. *Portalea tabernan.*
- ✓ **Martxoaren 2ra arte**  
**PKARLOS MARTINEZ B-REN** "Ordem  
e progresso" proiektuaren inguruko  
erakusketa. *Portalean.*

## farmaziak

- ✓ **barixakua 7**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **zapatua 8**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 9**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **astelehena 10**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **martitzena 11**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **eguztena 12**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 13**  
EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)
- ✓ **barixakua 14**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

**2014 urte osorako**  
**GAUEZ**  
**Azkue (T. Etxebarria, 4)**

## lehiaketak

- ✓ **Hitz bikoteen Lehiaketa**  
**Egin beharrekoa:** Izena + adjektiboa erabilita, hitz bikotea osatzea (euskaraz). **Lanak aurkeztea:** Otsailaren 16ra arte, euskaltegia@eibar.net / eibar@aek.org helbidera edo zuzenean euskaltegietakoko batean lagata. **Informazio gehiago:** www.eibarko-euskara.com
- ✓ **Emakume Langilearen Eguneko Lan Artistikoen II. Lehiaketa**  
**Gaia:** Martxoak 8. **Norentzat:** 16 urtetik gorakoentzat, edozein teknika erabilita sortutako artelanekin. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkarte (astelehenetik eguenera, 17.00-19.00), otsailaren 28a baino lehen. **Saria:** 200 euro. **Informazioa:** Arrate Kultur Elkartea, 943-202299 (mezua laga) edo arratekultu@gmail.com

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekua .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.50, 13.50, 15.50, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.50etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

		1		8		5		
2	9				4	6		
		7			3			2
	1							8
		6	5		8	4		
8								6
7			3			8		
		3	8				5	9
		5		2		1		

## SUDOKUA

8	4	9	7	6	3	2	5	1
6	1	7	2	5	9	4	3	8
3	2	5	8	1	4	7	6	9
7	3	4	9	8	5	6	1	2
9	6	1	3	7	2	5	8	4
5	8	2	1	4	6	3	9	7
2	5	6	4	9	1	8	7	3
1	7	3	6	2	8	9	4	5
4	9	8	5	3	7	1	2	6

AURREKOEN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Asola-Igartzan. 3 logela, egongela, 2 bainu-gela, guztiz jantzitako sukaldea, estalitako terraza handia eta garajea. 88 m<sup>2</sup> "erabilgarri". Hegoaldera begira. Tel. 679-649548.  
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berrituta eta argitsua. 130 m<sup>2</sup>. Tel. 626-203838.

### 1.2. Errentan

– Emakume arduratsua pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 679-910991.  
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 632-192408.  
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 650-152866 eta 698-604531.  
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. 400 euro ordainduko nituzke gehienez. Tel. 633-843512.  
– Esteponan (Malaga) pisua alokagari martxoan, apirilean eta maiatzean. 3 logela, 2 bainu-gela eta egongela. Portu, hondartza eta herritik gertu. Itsasora begira. Tel. 943-201294 eta 657-799311.  
– Pisua alokagari Jardinetan kalean. 3 logela eta egongela. Tel. 690-018786.  
– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-337083.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Mercedes Benz, E-320 CDI klasea salgai. 224 cv. 118.300 km. 2007 urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.  
– Citroen Xsara salgai. Diesel. 90 cv. Garajejan gordeta beti. Egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 656-733131.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai Untzagan. Merke. Tel. 685-916047.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-205490.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-023214.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 679-910991.  
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 669-994669.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 609-842165.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 639-730884.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-126668.  
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 677-860971.  
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Baita gaixoak ospitalean ere. Tel. 638-249775.  
– Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 638-249775.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 642-609678.  
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.  
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-239368.  
– Mutila eskaintzen da sukaldean lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-053415.  
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: peoia, garbiketak... Tel. 632-192408 eta 632-569245.  
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 656-837587.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 663-911069.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Asteburuak barne. Tel. 631-466742.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 606-354982.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-197217.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-700902.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-866929.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak lanak egiteko. Orduka. Tel. 699-232823.  
– Gizonezkoa eskaintzen da tabernak edo soziedadeak garbitzeko. Tel. 603-550465.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-597073.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-418130.  
– Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 608-820954.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.  
– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 652-532589.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. Tel. 600-332954.  
– Mutila eskaintzen da iturgintza-lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 685-611778.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-338816.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-788198.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 654-938957.  
– Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 20 urteko esperientzia. Orduka zein egun osoz. Tel. 680-463892.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen dira. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsitateko. Tel. 669-622642. Mireia.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Bi plazako sofa salgai. Beigea, chesloi-arekin eta etzangarria. Oso merke. Tel. 606-882043 eta 943-043008.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Betaurreko progresiboak galdu nituen hilaren 23an Eibarren. Tel. 629-316382.

### 6.4. Bestelakoak

– Bigarren eskuko josteko makina elektrikoa erosiko nuke. Tel. 675-707518. Esther.



# La Salle

Eibar

## AURREMATRIKULA ZABALIK

2014-2015 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133

943 121 698

[www.lasalleeibar.com](http://www.lasalleeibar.com)

**Otsailaren  
3tik 14ra**  
(biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA,  
LEHEN HEZKUNTZA**  
eta **DERRIGORREZKO BI-  
GARREN HEZKUNTZA**

**La Salle Isasi  
eta Azitain Ikastetxee-  
tan**



...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu  
tzu  
**zerbitzua**

**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelarrera,  
gaztelarik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**



- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.



[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

# Aurrematrikulak

# Otsailaren 3tik 14ra

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

Eskola honetan  
batu egiten  
ditugu

aniztasuna,  
bizikidetz  
eta hurbiltasuna

aurrematrikula egiteko epea:  
otsailaren 3tik 14ra

eta  
biderkatu  
egiten ditugu

zure gaitasunak,  
zure balioak  
eta zure aukerak

euskal eskola publikoa

PERTSONA HELBURU

ELUSKO JAIHULARITZA GOBIERNO VASCO

Online prematrikula: [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

## 2014-2015 IKASTURTEA



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78